

IRABAZI ITURRIAK

Atal honetan gure enpresak zein irabazi iturri izango dituen azalduko dugu. Zer salduz edo zein bideren bitartez lortuko dugun dirua gure hilabeteko kostuak eta inbertsioak ordaindu ahal izateko eta enpresaren etorkizuna ziurtatzeko. Hau da, zer egingo dugun dirua irabazten dugula ziurtatzeko.

Hasierako diru sarrera gure poltsikotik jarriko dugu gure aurrezki denak inbertituz. Hasierako inbertsioa 5.873,58€-koa da bertan lehen materialak erosiko ditugu, horretarako, bakoitzak 1.468,40€ jarri beharko ditu.

Gure diru iturri nagusia mugikorren salmentatik etorriko da, hau da, aktiboen salmenta izango da. Horregatik hilabeteko 200 mugikor saltzea espero dugu, eta bakoitza 375€tan salduko dugu. Horrek 75.000€ ekarriko lizkiguke.

Gure produktuen iragarkiak beste leku batzuetan jartzeaz gain gure mugikorretan ere jarriko ditugu beste enpresa batzuen iragarkiak, eta hauek gutxi iraun eta bakarrik joango dira, helduei arazoak ez emateko. Gainera, beti ziurtatuko dugu iragarkiak gure bezeroen beharretara egokituak izatea, adibidez, estabilitate gehiago izateko makilak, ohe bereziak mugimendu gutxiago dutenentzat, gauerako pixoialak, hirugarren adineko jendearentzat antolatzen diren bidaiak... iragarki egokituak jarriko ditugu gure bezeroentzat.

HILABETEKO DIRU SARRERAK	
Mugikorren salmenta	75.000€
Irrati, egunkaria eta telebista iragarkiak	6.500€
Guztira:	81.500€

Ondorioz, hilabeteko diru sarrerak mugikorren salmenta eta iragarkietan izango du oinarria. Bi gauza hauekin 81.500€ inguruko irabaziaz izango genituzke hilabetero, baina kontuan hartu behar dira hilabeteko izango ditugun kostuak ere, hau da, 70.659€ gastatuko ditugula kontuan hartuta enpresaren irabaziaz 10.841€koak izango lirateke hilabeteko.